

Joana

Japoniako lurrik azpian hartu zituen tsunamiak ez zituen etxeak eta herriak bakarrik hondatu, ez zituen gizonak eta emakumeak bakarrik ito, iragana ere erabat deuseztatu zuen. Geure bizitzaren kontakizunak erreferentziak behar ditu, gurasoak, familia, jaioterria, lagunak, heldulekuak behar ditu, aurpegiak, lekuak, sustraiak. Argazkiak behar ditu. Hildakoak eta aspaldi ikusi gabekoak gordezten ditugu argazkietan, beti berdin, beti geldi, eta haien begira ekartzten ditugu gogora, berpiztu egiten ditugu, gurekin daude. Ashigara herrian dauka

faktoria argazki-papera egiten duen Fujifilm enpresak. Martxoko tsunamiaren ostean, hara hasi ziren iristen bazterretan azaltzen joan ziren albumak. Urzikinak uhandituta, uhertuta, hondatuta zeuden argazkiak. Faktoriako 60 enplegiatuak, hainbat enplegatu ohi eta euren familia osoak jarri ziren, boluntario, argazkiak garbitu, berreskuratu eta gordeztera, hilabetetako lanean, egunerogunero.



Jira
Xabier Gantzarain

Hikaru Todak egindako bideoa, *The Guardian* egunkariak jarri zuen bere web orrian, abuztuaren 31n. Bideoa hasi eta berehala, boluntario bat azaltzen da, argazki baten atzeko aldean idatzita dagoena irakurtzen. Buelta ematen dio, eta aurrealdean erabat joana da.

Jende armatua

Ez da gozoa izango pasieran zoazela armadun kuadrilla bat aurkitzea plastikozko botilei tiroka. Hiru aldiz pentsatuko nuke paretik pasatu edo ez, badaezpada ere. Plazaolan zebilen gizonari pasatzen utzi diote behintzat Guardia Zibilek, baina gizona igaro eta gero berriro tiro egiteari ekin diote. Arma eta munizio berriak probatzen ari omen ziren. Mendian zoazela, pasieran zoazela, zelalain zehar zoazela, edozein lekutan kuadrilla armatu bat munizio berria probatzen ari daitekeela pentsatzeko latza da. Gernikako arma lantegi zaharra itxi ondoren,



Biria
Onintza Enbeita

bertako kuarteleko Guardia Zibilak lantegi osteko patioan ibiltzen ziren tiroka. Batek jakin zertarako egiten zuten tiro: munizio berria probatzeko ala denbora emateko. Eskuak burura eramaten ditugu halakoetan, edo burua alde batera eta bestera mugitzen dugu ezetz esaten bageunde legez, gure harridura eta haserrea erakusteko. Nola da posible Plazaolako pasiera ere ezin izatea lasai egin? Ez da horren gauza arraroa, ordea. Gure txikian hiru polizia kolore ditugu hemen, eta armak erabiltzeko inolako eragozpenik ez duenak armak erabili egiten dituz ahal duenean: munizio berria probatzeko, denbora emateko edo hiltzeko.

Zuzendaria:
Martxelo Otamendi
Zuzendariordea:
Enekoitz Telleria
Edizio arduraduna:
Andoni Alvarez
Argitaratzailea:
Euskal Editorea SM
Publizitatea: Bidera
publizitatea
Lege gordailua:
SS-0662/03
Batzorde parekidea:
0712184059

Egoitza nagusia:
Martin Ugalde kultur parkea,
Gudarian Etorbidea, z/g,
20140 Andoain.
Telefonoa:
(0034) 943-30 40 30
Faxa: (0034) 943-30 09 43
Webgunea:
www.berria.info
Posta elektronikoa:
berria@berria.info
Publizitatea:
publi@bidera.eu
Harpidetz saila:
(0034) 943-30 43 45

Date: 16/09/2011
Exemplar: 2.555
Editore: Euskal Editorea s.l.
Directeur de publication:
Martxelo Otamendi
Comission paritaire:
0712184059
Delegation Labour:
Lisses 3, 64100-Baiona.
Tel.: (0033) 559256220.
Fax: (0033) 559254303.
E-mail: lapurdi@berria.info

ORDEZKARITZAK
Araba: Bizenta Mogel, 6.
Posta kodea: 01008
Gasteiz. Telefonoa:
945-15 04 52. Erredakzioko
faxa: 945-14 83 07.
Posta elektronikoa:
araba@berria.info
Bizkaia: Urbitarte kalea, 18,
3. C. Posta kodea: 48001
Bilbo. Telefonoa:
94-435 26 00. Erredakzioko
faxa: 94-423 49 75.
Posta elektronikoa:
bizkaia@berria.info
Lapurdi: Lisses, 3. Posta
kodea: 64100 Baiona.
Telefonoa: 559-25 62 20.
Faxa: 559-25 43 03.
Posta elektronikoa:
lapurdi@berria.info
Nafarroa: Iratxeko Monaste-
ria, 45, 13. Posta kodea:
31011 Iruñea. Telefonoa:
948-36 66 22.
Publizitatea: 948-36 66 23.
Posta elektronikoa:
nafarroa@berria.info.

berria

Euskaltzaindia, Iruña Veleia eta Txillardegia

Koldo Urrutia
Arabako Iruña Argitzeko
Batzordearen izenean

Azko dira Euskaltzaindiak gure hizkuntza normalizatzeke eta jagoteko egiten dituen ekimenak, eta garrantzitsuena, ezbaizrik gabe, euskara estandar bat sortzea eta zabaltea izan da. Bere zeregin horretan, argi dago lorpen ederrak lortzen ari dela gure hizkuntzarako, eta herri gutxi egon daitezke euren akademiak harro euskaldunok gureaz gauden bezainbeste. Baina, bidean, badira harrotozko modukoak ez diren zenbait gauza ere. Esaterako, une honetan osasunegazki dagoen Txillardegia akademiaren sartzan utzi ez izana. Andres Urrutia euskaltzainburuak orain dela urte gutxi akats historiko hori konponatzeko ahaleginak egin bazituen ere, beranduegi zen eta Txillardegia uko egin zion sartzeari.

Txillardegia SOS Iruña Veleia Plataformak sustatutako *Iruña Veleia* ko auzia argitzearen aldeko manifestua izenpetu duten pertsonetako bat da, beste 2.132 gehiago bezala. Adierazpen horrek hiru gauza sinple bezain garrantzitsu eskatzen ditu: grafitoen analitika egitea, noizkoak diren jakiteko eta egiazkoak ala faltsuak diren behingoz argitzea; indusketa kontrolatuak egitea; Eliseo Gilek aurkitutakoan antzezikorik topatzen den ala ez; eta, azkenik, ostrakak egoera onean ote dauden egiaztatzea.

Zoritxarrez, Arabako Foru Aldundiak uko egin zion ostrakak analitikan bidez datuzeari, nahiz eta beste herrialde batzuetan sarri

erabiltzen duten. Adibidez, Italian, faltsuztat hartutako «fibula prenestina» testua egiazkoa dela frogatu dute analitikek, urte askoan faltsuztat hartua izan ondoren. Eta gauza bera Estatu Batuetan aurkitutako hezur batean egindako mamut baten marrazkiarekin. Iruña Veleian ere hezurretan egindako idazkunik daude; hauek ezin dira datatu eta Estatu Batuetakoak bai?

2008ko azaroaren 19an, Arabako Foru Aldundiak ostrakak faltsuztat hartu zituenean, Euskararen Jatorria Elkarteak zuzen eta lur geratu ginen datazioak egin gabe horrelako erabaki bat hartu zelako. Ondoren, adierazpen publiko bat egin genuen Durangoko Azokan eta jarraian Arabako Iruña Argitzeko Batzordea sortu genuen gai hau argitzeko.

Zoritxarrez, afera hau txarrazgo jarri da. Iazko uztaillean, epaileak Gilek eskatutako datazioak egitea onartu zuten hilabete berean, zuzendari berriak, Julio Nuñezek, honde amakina sartu zuen eta sektore oso bat suntsitu zuten, pala mekanikoa harlauzetaraino sartuz, horietako batzuk apurtuz eta horien gainean zeuden horma zatiak, hondakinak... den-dena isurtzera bidaliz erritmo beldurgarrian: 8 minututik behin kamoi bat betez.

Gai honen inguruan, Amatiñok adierazi zuen, Aldundiko Batzordeko kideek esandakoez inolako zalantzarik ez zuela izan esan ondoren, egiazkoak izan zitezkeela adierazten zuten 13 txosten eginda ikusita (orain 16 dira), ez zeukala zenitxurik datazioak ez egitea. Eta honako hau ere esan zuten: «Ez dakit baina, ni Euskaltzainburu edo Arabako Diputatu Nagusi banintz, ez nuke lasaiegi lo egingo. Eta... benetakoak balira? Historiak ez lieke

konturik eskatuko Gorrotxategiri, Lakarrari... ezta EHUri ere, Euskaltzaindiari eta Arabako Diputazioari baizik... Andres Urrutiak eta Xabier Agirrek dute hitza».

Euskaltzaindiak zerbait esan behar zuenez, martxoaren 9an gure elkarteak eskaera bat bidali zion. Gertatutakoan laburpenaren ondoren hauxe esaten genien: «Iruña Veleia euskararen historiariako ezinbesteko mugarririk bihurtu da dagoeneko, eta suntsitzen hasi dira, gure ueste apalean, euskal filologian irakasten diren eduki gutxi batzuen kontra egon litezkeen idazkunik aurkitu direlako. Eta, horregatik, honde amakina zientziaren eta egieren gainetik jarri dute... guzti honengatik, Euskaltzaindiari honako eskaera egiten diogu: Arabako Foru Aldundiari eska diezaioala gai hau bide zientifikoetatik kudea dezan, hau da, mundu mailan prestigio gehien duten arkeometriak laborategietara ostrakak batzuk eraman, idazkunik data ditzaten, eta ezta bida zientifikoak modu ireki, zabal eta muga gabe bultzatzea».

Bidali ondoren, apirilaren 8ko batzarrean gure idazkia aztertuko zutela adierazi ziguten telefonoz. Ostrakak egiazkoak izan daitezkeela adierazten duten txosten asko eta Nuñezek egindako suntsipenaren txostenik ez zuten, apirilaren 8an eskuz eman genizkien 2.400 orrialde baino gehiago okupatzen zuten txostenok, eta gaia egun horretan ez erabakitzeke eskatu genien, txostenetako batzuk ondo irakurri eta aztertuta arte bederen.

Zoritxarrez, Euskaltzaindiak egun horretan gaia amaitutzat eman zuten, eta egun horretan erabakitzeke, honako erantzuna igorri zigun hurrengo astean, Xa-

bier Kintanak izenpetutako gutun batean: «Zure gutuna eta dokumentazioa jaso da, bai eta zure kezka ulertu ere. Diozunez, Iruña aztertutegiaren gainean honde amakina batzuk ari dira lanean, eta zuloak egiten dabilten lekuan arkeologik gairik egonez gero, pentsatzeko da jarduera horrekin kalte egin liezaieketela bertako aztarnari. Uste izatekoa da, horko indusketat arkeologo profesionalen zuzendaritza pean egiten badira behintzat, aurretik azpian egon zitezkeen materialak ongi babesteko behar ziren neurriak hartuko zirela».

Kontuan hartu behar da, nolahi ere den, Euskaltzaindia ez dela arkeologiaz arduratzen den erakundea, eta, alde horretatik, ez dagoiola iritzia eskatu ere egin ez zation arlo horretan eskuia sartzea.

Zure interesa eskertuz, adeitasunez agurtzen zaitu».

Zur eta lur geratu ginen. Gauza askorik ez genuen espero, baina horrelako erantzun bat... Batetik, behar ziren txostenak irakurri gabe hartu zutelako erabakia, hau da, beharrezko informazioa jaso gabe. Bestetik, gai arkeologiko batez arituko bagina bezala tratatu zutelako gaia, euskararako gai garrantzitsuena dela, akats historikoa egin du, euskara historikoa argitzeko dugun aukera bakarra lurperatu dutenei babsa eskaini dielako; zientziari

—kasu honetan, aurkikuntzak datuzten dituen arkeometriak— atek itxtea justifikatu duelako; eta, txarrena, euskararen eta ondarearen kontra Nuñezek egindako sarrraskia ontzat eman duelako. Iruña askoan gogora dezagun hori!